



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 12an

24 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena (4. or.).
- Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fonda zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (5. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (11. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (11. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra aurkeztua (12. or.).
- Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (14. or.).
- Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearaztekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (15. or.).
- Foru Lege proposamena, Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeko buruzkoa. Tramitazioari buruzko (15. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

- Tabakoari buruzko Foru Plana. Proposamenak aurkezteko epearen luzapena (16. or.).

E SAILA:**Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egin dezan (17. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan (18. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan (20. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina, abelbideei buruzko Foru Legea bete-
tzearen gainekoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, nekazaritza aseguru konbinatuei
emaniko dirulaguntzei buruzkoa (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2001. urterako plantilla organikoa (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko otsailaren 19an hartutako erabakiaren bidez, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eleduen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko Foru Lege proiektua pre-miazko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko martxoaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko Foru Lege proiektua

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak VI. tituluko II. kapituluko 1. ataleko 52-56 artikuluetan arautzen da zer zerga pizgarri emanen zaizkien sortu berriko entitateei eta X. tituluko XIII. kapituluko 156. eta 157. artikuluetan, berriz, zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroak arautzen dira.

Lehenbiziko pizgarria da entitateak izan duen errentari dagokion kuota osoaren 100eko 50eko hoberia aplikatzea, eta aplikatu ere, jarduera hasi eta hurrengo zazpi urteko epean ixten diren zergaldietan, lau zergaldi direla gehienezko muga, kitapen oinarri positiboak izan dituen lehen zergalditik kontatuta.

Bestalde, zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroek bi metodo izanen dituzte aukeran zerga oinarria kalkulatzeko:

– Sozietateen gaineko zergari buruzko foru legeko 13. artikuluko arau orokorrak aplikatzea.

– Zentro horiek zergaldi bakoitzean izan dituzten gastuei 100eko 25 aplikatzea, finantza gastuak kanpo utzita.

Kontuan hartu behar da, gainera, Europako Batzordeak 1999ko abuztuaren 17an jakinarazi zuela hasiko zela EB Itunaren 88. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen den prozedura, Sozietateen gaineko zergaren kuotari 100eko 50eko hoberia egitearen bidezko laguntza fiskalei buruzkoa.

Beste alde batetik, Europako Batasunean eratu den Jokaera Kodearen Taldeak (enpresen zerga kontuak), ezarri du Nafarroan zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroetarako hartu diren neurriek betetzen dituztela kaltegarritzat jotzeko behar diren baldintzak, ohi baino nabarmen txikiagoko zerga-maila sortzen dutelako.

Delako gatazka-bidea ez da soilik Europako instituzioen barrenean gertatu; Espainia barrenean ere gertatu da: Espainiako Gobernuak, hortaz, 1299/97 konstituzio aurkakotasuneko helegitea jarri zuen, arestian aipatu pizgarrien kontra, zeina oraindik ebazkizun baitago Konstituzio Auzitegian.

Gauzak horrela, bada, Estatuaren Administrazioak eta Nafarroako Foru Komunitatearenak konpromiso bat eratu dute Kooperazio Batzordean (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 69. artikuluan arautua): haren arabera, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari gatazka-bide diren zerga pizgarriak kentzeko; Estatuaren Administrazioak, berriz, utzi egingen du arestian aipatu 1299/97 konstituzio aurkakotasuneko helegitea, eta bai 549/94 helegitea ere, azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko zenbait aginduren gainekoa.

Orain artekoa gogoan, Nafarroako Gobernuari beharrezko iruditzen zaio sortu berriko entitateei kuotaren hobaria egiteari eta zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroei dagozkien zerga pizgarriak indargabetzea.

Artikulu bakarra. 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietarako, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko agindu hauek indargabetzen dira:

- a) VI. tituluko II. kapituluko VI. 1. atala.
- b) X. tituluko XIII. kapitulua.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatu eta gartzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko otsailaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko martxoaren 30eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea 2000ko azaroaren 27ko 143. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Bertan eduki batzuk atzeman dira tronpagarriak izan daitezkeenak Botikei buruzko 25/1990 Legearekin eta hau garatzen duen arautegiarekin alderatuz gero.

Batetik segurtasun juridikoa, eta bestetik Foru Komunitateko arautegia eta Estatuak osasunaren eta botiken arloetan dituen eskumenak elkarrekin etortzea lortzeko, komeni da eduki horiek aldatzea, betebeharrak horietara egokitzeko.

TESTU ARTIKULUDUNA

1. artikulua. Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeko 43. artikuluko 2. idatz-zatia, 47. artikuluko 4. idatz-zatiko a) eta b) letrak eta 47. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra aldatzen dira, bertan aipatzen diren "inportatu" eta "esportatu" aditzak kenduz.

2. artikulua. Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeko 36. artikuluko 11. idatz-zatia eta 47. artikuluko 5. idatz-zatiko i) letra indarrik gabe uzten dira.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian ezartzen duen Foru Lege proiektuaren artikuluei egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dit. Proiektu hori 2000ko abenduaren 4ko 106 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa.

1. artikulua ordeztzea proposatzen da.

"1. artikulua. Fondoaren dotazioa.

Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan 2001eko ekitaldirako parte hartzeko Fondorako guztira 26.663.811.000 pezetako dotazioa ezartzen da, Nafarroako aurrekontu orokorretan agertuko dena.

Zioak: Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorreari buruzko eztabaidan onetsitakoari egokitzeko zenbatekoa.

2. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa

2. artikuluko 1. puntua ordeztzea proposatzen da.

"1. Transferentzia arruntak 16.916.502.000 pezeta.

Zioak: Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorreari buruzko eztabaidan onetsitakoari egokitzea zenbatekoa.

3. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa

2. artikulua III. puntuaren A letra ordezteko proposatzen da.

“III. Bestelako laguntzak:

A. Iruñeko Udalari, “Hiriburutza Agiriagatik”: 2.138.691.000 pezeta.

Zioak: Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorreari buruzko eztabaidan onetsitakoari egokitzea zenbatekoa.

4. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa

2. artikulua III. puntuaren B letra ordezteko proposatzen da.

“III. Bestelako laguntzak:

B. Nafarroako gainerako udalei: 882.357.000 pezeta.

Zioak: Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorreari buruzko eztabaidan onetsitakoari egokitzea zenbatekoa.

3. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

3. artikuluko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan behar du:

“Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa 8.096.981.000 pezeta izanen da 2002. urterako eta 8.069.200.000 2003. urterako”

Zioak: Toki entitateek azpiegituren arloan egoniko eskariei erantzuna ematea.

6. ZUZENKETA

JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

3. artikuluko hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan behar du:

“aurreko artikuluan kontzeptu horietarako 2001. urterako aurrez ikusitakoa izanen da, eta horri erantsiko zaio Komunitatean tributu dirusarreraren handitzea, portzentajearen arabera. Handitzea ez da inolaz ere izanen kontsumoko prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean, ekainetik ekainera neurturik, urte horietako bakoitzean handitu den portzentajea baino txikiagoa.”

Zioak: Parte hartzeko fondoak egiaz izatea zergetan parte hartzeko fondoak.

7. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa

3. artikulua. Aurrekontuko kontsignazioa.

Azken lerrokadaren ordezkari honakoa proposatzen dugu:

“2002 eta 2003. urteetarako transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako dirutza izanen da aurreko artikuluan kontzeptu horietarako 2001 urterako aurrez ikusitakoa gehi fondoaren azken 10 urteotan pilatutako galera balioetsiaren herena, eta horri erantsiko zaio BPG nominala urte horietako bakoitzeko.”

Zioak: Errealistagoa da toki entitateek Nafarroako tributuaren parte hartzeko fondoak urtero gaurkotzea Foru Ogasunak tributu horietatik hartzen duen diru-kopuruaren handitzearen arabera, fondoak horretan baitu diru iturria; 2001erako % 6,4 handituko direla kalkulatu da. Era berean, fondoak azken hamarkadan pilatu duen galera berreskuratu behar du.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko hirugarren lerrokada ordezteko zuzenketa:

Artikulu honen hirugarren lerrokada testu honekin ordeztzea proposatzen da:

“2002 eta 2003. urteetarako transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako dirutza kontzeptu horietarako 2001. urterako aurrez ikusitakoa izanen da, eta horri erantsiko zaio Foru Komunitateko tributu dirusarreren handitzearen aurreikuspenetik heldu den kopurua, urte bakoitzeko eta betiere Nafarroako kontsumoko prezioen indizea, gutxienez.”

Zioak: Kontsumoko prezioen indizea Nafarroako udal eta kontzejuen finantzak eta egoera ekonomikoa okerragotzen dituen gaurkotze indizea da. Gastu orokorren hazkundera indize horretatik gorakoa izaten da. Zuzenagoa da Nafarroako toki ogasunen parte hartzea loturik egotea Nafarroako Ogasunaren dirusarreren hazkunderarekin eta ez KPIrekin.

6. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko B) idatz-zatiaren lehendabiziko lerrokada testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“B) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskala eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren bost aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak bost dirusarrera moten dirubilketen kopuru osoari buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabiliko diren aldagaiak honako hauek dira:”

Zioak: Ahalmen fiskalaren beste indizea, Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga, alegia, gehitzea.

10. ZUZENKETA

JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

6. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Honakoa esan behar du:

“• Udal bakoitzaren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren eskubide kitatuek Nafarroako udalen balioen kopuru osoaren gainean duten portzentajea, Iruña kenduta.”

Zioak: Jarduera ekonomikoen gaineko zerga sartzea, funtsezkoa delako birbanaketarako edozein politikatan.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko B idatz-zatiaren amaieran gehiketa egiteko zuzenketa. Hauxe da testua:

“Udal bakoitzean jarduera ekonomikoen gaineko zergaren balioak Nafarroan zerga honen eskubide kitatuen kopuru osoaren gainean, Iruña kenduta eta udal errekarquak aintzat hartu gabe”.

Zioak: Udal bakoitzaren ahalmen fiskala ez dago osaturik, ez baitira jarduera ekonomikoen gaineko zerga bezalakoak biltzen.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko C idatz-zatiaren lehendabiziko lerrokada testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,3135 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:”

Zioak: Faktorea zuzentzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga sartzearen ondorioz.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko c) idatz-zatiaren amaieran gehiketa egiteko zuzenketa. Hona testua:

“• IAE udal bakoitzaren jarduera ekonomikoen gaineko zergak Nafarroan zerga horretatik biltzen den diru kopuru osoarekiko duen portzentajea da, udal errekarquak aintzat hartu gabe, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betez egindako erregistroaren arabera.”

Zioak: Formula berria, jarduera ekonomikoen gaineko zerga barne, ongi ulertu ahal izateko azalpen datuak sartzea.

14. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua. C idatz-zatiaren formula ordezteko zuzenketa:

$$FTC = 0,9206 \times PPOB + 0,2118 \times PMA65 + 0,2964 \times PURB + 0,0226 \times PNDISEM + 0,0051 \times PENTSING - 0,1801 \times CTU - 0,0282 \times CTR - 0,0717 \times IAE - 0,0753 \times IVTM - 0,1012 \times VCC$$

Zioak: Jarduera ekonomikoen gaineko zerga gehituta sor daitezkeen disfuntzioak zuzentzea.

**7. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK****15. ZUZENKETA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Ordezpena egiteko zuzenketa

7. artikuluko 1. puntua ordeztekoa

1. Toki entitateek transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2001, 2000 eta 2003ko aurrekontualdietan jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2000. urteko behin-behineko banaketak ezartzeko Toki Administrazioako kontseilariak ekainean emaniko 114, 115 eta 117/2000 foru aginduen arabera kontzeptu horretan udaletan jasotako dirutza baino gutxiago.

Zioak: Zenbait udali banaketa formularen asmoekin bat bermea finkatzerakoan egindako akats materiala zuzentzea.

6. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa

7. artikulua. Bermearen aplikazioa eta udaletarako behin betiko asgnazioa, 3. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Bermearen klausula desegokia da. Oraingo egoerari jarraipena ematea da, edo kasu batzuetan fondoko parte hartzea okerragotzea.

**9. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETAK****17. ZUZENKETA****UNION DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Ordezpena egiteko zuzenketa

9. artikuluko 1. puntua ordeztekoa.

“1. Kontzejuek eta beren udalek Toki entitateek transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2001, 2000 eta 2003ko aurrekontualdietan jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2000. urteko behin-behineko banaketak ezartzeko Toki Administrazioako kontseilariak ekainean emaniko 114, 115 eta 117/2000 foru aginduen arabera entitate bakoitzak jasotako dirutza baino gutxiago.”

Zioak: Zenbait udali banaketa formularen asmoekin bat bermea finkatzerakoan egindako akats materiala zuzentzea.

18. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da egokia udalei bermatzea eskolako unitateengatik dirusarrerak eta kontuan ez hartzea kontzejuei bermearen klausula ezartzeko.

**11. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETA****19. ZUZENKETA****JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

11. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Honakoa esan behar du:

“Nafarroako Gobernua atzeratzen bada aurreko zenbatekoen ordainketa egiten, toki entitateek eskubidea izanen dute dagozkion interesak, diruak ofizialki ezarririk duen prezioaren arabera.

Zioak: Administrazio publikoen arteko harremanak berdintasun handiagokoak izatea.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

20. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa xedapen gehigarriari

Zioak: Xedapen gehigarriak ontzat ematen du eginik dagoena, behin-behinekoa izan zena, banaketako ekitaldiarekin bat heldu ez ziren populazio datuetan oinarriturik egindakoa, sendotu egin du. Zenbait udaletan kontuan hartzen badugu biztanleria mugikorraren hazkundera, horrek aldaketa garrantzizkoak dakartza 1999 eta 2000rako eginiko banaketetan.

21. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Ondoko testua proposatzen da:

“Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte-hartzeko Fondoaren transferentzia arrunten banaketak (Toki Administrazio kontseilariak, 1999. urterako behin-behineko banaketa ezartzeko, ekainaren 25ean emandako 150/1999 eta urriaren 13an emandako 447 eta 448/1999 foru aginduen eta 2000. urterako behin-behineko banaketa ezartzeko ekainean emandako 114, 115 eta 117/2000 foru aginduen arabera eginak) behin betiko bihurtzen dira.”

Zioak: Zenbait udali banaketa formularen asmoekin bat bermea finkatzerakoan egindako akats materiala zuzentzea.

22. ZUZENKETA

**JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Honakoa esan behar du:

“Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte-hartzeko Fondo Orokorraren transferentzia arrunten banaketak (Toki Administrazio kontseilariak ekainaren 25ean emandako 1999 urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen 150/1999 Foru Aginduaren arabera eta 2000

urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio kontseilariaren 1217/2000 Foru Aginduaren arabera eginak) ez dira behin betiko bihurtzen. Urte bakoitzeko egiazko datuetara egokituko dira.”

Zioak: Banaketa urte bakoitzeko errealitateari egokitzea.

23. ZUZENKETA

**JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa, xedapen gehigarria berri bat gehitzeko.

Honakoa ean behar du:

“Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, lege honek indarra hartu eta bi hilabeteko epean, lan batzorde bat eratuko du, honako hauek osatua: Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, Nafarroako udal eta kontzejuen federazioarenak eta Foru Parlamentuko Toki Administrazio Batzordea ere, urtebeteko gehieneko epean Nafarroako toki esparruko itunaren baldintzak zehaztu ditzan. Itun horretan eskumenen mapa berria ageriko da, bai eta aurreko maparekin bat hildu den baliabide banaketa ere.”

Zioak: XXI. menderako administrazio moderno baten oinarriak ezartzea.

24. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria berria gehitzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“2. Nafarroako Gobernuak, 2001-2003 hiru urtekoan, Nafarroan toki esparruko itun bat egiteko oinarriak prestatuko ditu, NUKFarekin, Parlamentuko taldeekin eta toki entitateekin, bertan aztertzeko toki entitateen eskumenak, eta zer kostua duten haientzat, eta bi administrazioen arteko hitzarmenaren formula ezar dezan. Toki entitateen eskumen esparrua eta haren finantziazioa berrikusiko dira.”

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

25. ZUZENKETA

JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko zortzigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

“Foru lege honek, lehenik, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa finkatzen du, eta, hurrena, zenbateko hori transferentzia arrunt eta bestelako laguntzen kontzeptuan handitzeko sistema, bat etorriko dena Foru Komunitateko tributu dirusarreraren handitzearen portzentajearekin, bermaturik, gutxienez ere, Nafarroako Foru Komunitatean, ekainetik ekainera neurturik kontsumoko prezioen indizeak izandako handitzearen portzentajea.”

Zioak: Fondo hau, egiaz, parte hartzeko fondo izatea.

26. ZUZENKETA

JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hamabosgarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honakoa esan behar du:

“Ahalmen fiskalaren indizeak 0,31eko ponderazioa du, alegia finantzatu behar diren gastu arruntetatik indize horretan adierazirik dauden toki baliabide ekonomikoek osotara egiten dutena. Baliabide horiek honako hauek dira: hirilur eta landalur kontribuzioa, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga eta herrilurren katastro balioa.”

Zioak: Jarduera ekonomikoen gaineko zerga sartzea, funtsezkoa delako birbanaketarako edozein politikatan.

27. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Legearen zioen azalpeneko 16. lerrokada testu honekin ordeztzeko zuzenketa:

“Ahalmen fiskalaren indizeak 0,3135eko ponderazioa du, alegia finantzatu behar diren gastu

arruntetatik indize horretan adierazirik dauden toki baliabide ekonomikoek osotara egiten dutena. Baliabide horiek honako hauek dira: hirilur eta landalur kontribuzioa, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga eta herrilurren katastro balioa eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga.”

Zioak: Banaketa formula jarduera ekonomikoen gaineko zerga sartu izanari egokitzea.

28. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezpena egiteko zuzenketa.

Zioen azalpeneko azkenurreko lerrokadaren testu hau ordezteko proposatzen da:

“Lehen eta bigarren mailan udal guztiei urte bakoitzerako gutxienez 2000. urteko ekitaldian jasotako Fondoa bermatzen zaie, 2000. urterako behin-behineko banaketa ezartzen zuen ekainaren 28ko Toki Administrazioako kontseilariaren 117/2000 Foru Aginduak ezartzen zuena. Hirugarren mailan kontzeju bakoitzari, gutxienez, lege hau aplikatzen den urte bakoitzerako, aipatu Foru Aginduren arabera 2000. urtean jasotako Fondoa bermatzen zaio.”

Hauxe da proposatzen den testua:

“Lehen eta bigarren mailan udal guztiei urte bakoitzerako gutxienez 2000. urteko ekitaldian jasotako Fondoa bermatzen zaie, 2000. urterako behin-behineko banaketa ezartzeko Toki Administrazioako kontseilariak ekainean emaniko 114, 115 eta 117/2000 Foru Aginduek ezartzen zutena. Hirugarren mailan kontzeju bakoitzari, gutxienez, lege hau aplikatzen den urte bakoitzerako, aipatu Foru Aginduen arabera 2000. urtean jasotako Fondoa bermatzen zaio.”

Zioak: Zenbait udali banaketa formularen asmoekin bat bermea finkatzerakoan egindako akats materiala zuzentzea.

Foru Lege proiektua, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kon-

tseilua sortzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko martxoaren 16ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea **2001eko martxoaren 16ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzko Foru Lege proposamenaren biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen dituen lurak babesteari buruzkoa

Bardeako tiro poligonoa Erreserba Integral deklaratu behar da, bertan estepa-landaretzaren eta ornitologiaren arloetan biltzen diren balio handiak direla-eta.

Aurrekariak

Bardeetako gunek hori osatzen duten 2.000 hektareetan estepa-landareta garatu da, eremu militar horren barnean zeuden labore-lurak orain dela ia 50 urte bertan behera utzi zirelako. Horren

ondorioz, estepa-ekosistema tipikoa garatu ahal izan da, eta, bonbardaketa trinkoen eremua salbu, azkar leheneratu eta sar daiteke Nafarroako Gune Babestuen Sarean.

Hiru erreserba integralak (Lizardoiakoa (RI-1), Otsagabian, Ukerdikoa (RI-2), Izaban, eta Aztaparretakoa (RI-3), Izaban, baita ere) Lurraldea Babestu eta Erabiltzeko Eskualdeko Hirigintza Arauei buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legeak deklaratu zituen. Gaur egun, lege hori guztiz edo ia guztiz indargabetua dago. Lege horren bitartez ere deklaratu ziren 38 natur erreserba Nafarroa guztian, eta erreserba horiek gaur egun ere badiraute.

Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak fauna babesteko eremuen sarea indartzeko balio izan zuen. Sare horretan sartzen ziren erreserba integralak, natur erreserbak, lekune naturalak eta natur parkeetako hainbat eskualde, Natur Baliabideak antolatzen dituzten Planetan ezarritakoaren arabera.

Beranduago, Itoizko urtegiari itxurazko lege-esparru bat emateko asmoz, Nafarroako natur guneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea onetsi zen. Lege horrek honela definitzen du erreserba integrala: "Erreserba Integralak zabalera txikiko gunek dira aparteko interes ekologikoa dutenak. Halaxe deklaratu dira barrenean biltzen dituzten ekosistemen multzoa oso-osorik zaintzeko eta haien suntsipena, hondamena, itxuraldaketa, aldaketa edo desitxuraketa galarazteko".

Hori guztia dela-eta, tiro poligonorako figurarik egokiena erreserba integrala da. Halakotzat deklaratu ahal izateko, foru lege bat onetsi behar da, natur erreserben kasuan bezalaxe. Alegia, Nafarroako Parlamentuak aukera paregabea dauka babes-figura hori emateko Nafarroako Errege Bardeako Natur Parketik kanpo nahita utzi zen lurralde horri, zeina Parlamentuak jadanik berres-

kuratu baitu –berreskurapen horrek datorren ekainaren 10etik aurrera izanen du indarra–, aipaturiko natur parkeari gehitu ahal izateko.

Azalpena:

Tiro poligonoaren azalera 2.000 hektarea ingurukoa da, eta bertan behera utzitako behinolako labore-lurrek, trokarteek eta muino txikiak osatzen dute. Denboraren poderioz, eta bertan behera utzia egoteagatik, gaur egun Penintsula Iberikoan dauden estepa-ekosistema puru onenatarikoa eratu da.

Tiro poligonoaren ondoriozko ingurumen-eragin guztiak alde batera utziz, ontinaz eta sisalloz osaturiko multzo handiak eta modu naturalean bilakatu den erreka-landaretza eratu dira, militarrik ez diren pertsona guztiak eremuan sartzea debekatuta baitaude. Espartzuz estaliriko lur franko ere aurki daiteke tiro poligonoan.

Estepa-ekosistema natural horri loturik, bada-go osoki horren menpekora den fauna. Dupont hegaxabal, ganga, ortega, atalar eta txoriandre pispoleta ugari aurki daiteke. Bereziki aipagarria da hain urria den Dupont hegaxabala, hain zuzen, eskualde horretan dagoelako Ebroko ibarrean hobekien iraun duen populazioetako bat. Untxiak, eperrak eta erbiak ere badaude, tiro poligonoa Bardeako ehiza-barrutiaren barneko ehiza-erreserba kontsideratzen baita. Gainera, Bardeetan oraindik ere aurki daitezkeen hegazti harrapari handiak –arrano beltza, hontz handia, belatz handia eta sai zuria– ehizatzeke eskualdea da.

Poligonoa erabiltzen duten hegaztien artean kurrilo multzoak aurki ditzakegu: euren migrazioan geldialdi bat egiten dute leku patxadatsu honetan atseden hartzeko, hegazkinen ordutegietatik kanpo. Negupasa-aroan, poligonoan samalda handiak ikus daitezke, belatxinga mokogorriek, hegaxabalek, kalandriek, txoriandreek, txokek, berdantzek eta beste paseriforme batzuek osatuta.

Sartzea debekatua dagoen arren, zenbait artalde eta behi hezigabeen talde batzuek barnean bazkatzen dute, nahiz eta tiro-ituen eremuan, alegia, arriskutsuenean, ez diren sartzen. Abertalde horien eskortak tiro poligonoaren ertzeko bidetik –zeinak Perimetroko Bide izena baitu– gertu dagoen eremuan daude.

Halaber, han barnean erreka-esparruak daude, eta bertan bizi dira haiei loturiko animalia guztiak: buztanzuri beltza, bele txikia, azeria, untxia.

Bestalde, zenbait putzu ere badaude. Garrantzitsuenen artean, aipatzekoak dira tiro poligonoa-

ri dagozkion instalazioen ondoan kokaturik dagoen bat eta Zapatako putzua. Azken horretan, negupasan datozen ahate asko biltzen dira: basahatea, zertzeta arrunta, ipar-ahatea, ahate buztanluzea, ahate txistularia, ahate mokoabala, murgilari arrunta, murgilari mottoduna... bestalde, honako hauen hazkuntza-tokia ere bada: kopetazuria, uroiloa, txolinporta txikia, murgil handia, txiritxo handia. Azken urteotan, txori-zezenaren etengabeko presentzia detektatu da tiro poligonoan dauden bi putzuetan. Espezie hori iraungitzeko arriskuan dagoela jotzen da Nafarroan, Estatuan eta baita Europako Batasunean ere; horregatik, horren presentziak bertako balio ornitologiko eta ingurumenekoak sendotzen ditu.

Tiro poligonoan elkarrekin bizitzen ari diren estepa- nahiz ur-inguruneetako espezieen aberastasun eta ugaritasun izugarria ikusirik, beharrezkoa da lurralde horretan dauden ekosistema eta espezie guztiei buruzko azterlan xehekatu eta sakona eta zonifikazioa egitea.

1. artikulua. Bardeako tiro poligonoak gaur egun hartzen duen lurraldea Erreserba Integral deklaratu egonen da, ondorio guztiakin, hurrengo ekainaren 10etik aurrera. Ingurumen-babeseko figura horren bidez arautuko dira bertako balizko erabilerrak.

2. artikulua. Tiro poligonoaren lurraldea Erreserba Integral izatearen deklarazioak indarra hartzen duenetik, gaur egun noizean behin lurralde horretan bazkatzen duen azientaren gain kontrol zorrotza eginen da, litekeena baita eremu horretara joaten diren abereen kopuruak gora egin, lurralde hori bazkaleku gisa gehiegi erabili eta, beraz, estepa-zona horri kalte egitea.

3. artikulua. Legeak indarra hartu ondoren eta xedapen iragankorrek bete ondoren, oinez, zaldi gainean edo bizikletan egiteko ibilbideak sortuko dira, tiro poligonoan barrena, gaur egun bonbardaketarik ez dagoenean traktoreek erabiltzen dituzten bi bide aprobetxatuz. Ibilbide horiek itxita egonen dira estepa-hegaztiak habia egiten duten sasoiak; izan ere, hegazti horiek lurtean erruten dituzte euren arrautzak. Ezin izanen da bide horietatik kanpo ibili. Ibilgailu motordunetan ibiltzea debekatuta dago.

Xedapen iragankorrek

Lehena. Foru Lege honek indarra hartu ondoren Defentsa Ministerioari eskatuko zaio tiro poligonoak hartzen duen eremu guztian sakabanaturik dauden material arriskutsu guztiak eta bonba inerte edo lehertu gabekoak langile espezializa-

tuek gehienez ere sei hilabeteko epean deusezta eta ken ditzatela.

Halaber, euren bonbak Bardean jaurtikitzera datozen hegazkinetarako itu gisa Aire Armadak erabilitako ibilgailu, kamioi eta hegazkin zahar guztiak deuseztatu beharko dira. Ibilgailu horiek direla-eta, eremua txatar-gordailu izugarria bihurtu da.

Bigarrena. Foru Lege hau Errege Bardeako Komunitateari igorriko zaio, Lege honen aplikazioa posible egiteko berari dagozkion gai guztietan jardun dezan.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernua baimentzen da Foru Lege honek indarra hartu ondoko sei hilabeteko epean hura garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Halaber, Nafarroako Gobernua baimentzen da 3. artikulua aipatzen dituen ibilbi-deetan taulen eta marrazkien bidez eman dadin

jendeak eremu horietan aurki ditzakeen hegazti eta landareen berri.

Hirugarrena. Bardeako Komunitatea baimentzen da gaur egun tiro poligonoko Kuartela kokaturik dagoen instalazioak Errege Bardeako Komunitatearen materialak (bideak konpontzeko erabilitako Bulldozerra, motonibeladorak eta traktoreak) gordetzeko biltegi gisa erabili ahal izan daitezen.

Laugarrena. Foru Lege honek indarra hartu ondorengo sei hilabeteko epean, poligonoaren barnealdean itu-eremua zuzenean kontrolatzen duen dorrea eta inguruko instalazioak kenduko dira.

Bosgarrena. Foru Lege honek xedatzen duenaren aurkako maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetuko dira.

Seigarrena. Foru Lege honek 2001eko ekainaren 10ean hartuko du indarra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko abenduaren 12ko 109 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko martxoaren 30ean eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearaztekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearazteko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko otsailaren 5eko 8 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia

betearaztekoa Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko martxoaren 30ean eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruzkoa

TRAMITAZIORAKO BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen. Nafarroako Gobernuak, 2001eko otsailaren 26an hartutako Erabakiaren bidez, proposamen horren tramitazioarekin konforme ez dagoela adierazi zuen aurrekontuko kredituen gehiagotzea dakarrelako. Biltzarreko

Erregelamenduko 145.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruz aurkeztutako Foru Lege proposamena ez tramitatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Tabakoari buruzko Foru Plana

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Tabakoari buruzko Foru Planari proposamenak aurkezteko epea **2001eko martxoaren 23ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egin dezan

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko hezkuntza eta kultura gaietarako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordeak eztabaida eta bozka dezan:

Joan den otsailaren 15ean Hezkuntza eta Kultura Batzordean izan zuen agerraldian, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura kontseilariak berretsi zuen datorren ikasturtean Iruñeko José Vilá ikastetxe publikoa itxi egingen dela. Ikastetxea ixteko arrazoiak, Hezkuntza Departamentuaren hitzetan, ikastetxeko ikasleen kopuru txikia, jaiotze-tasen jaitzierak markaturiko egoera demografikoa eta hezkuntza planifikatzeko irizpideak dira; irizpide horiek direla eta, Iruñeko azken 10 urteetako egoerari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen, eta horren arabera, ikasle-kopuruaren jai-

tsierak sortutako arazoak eduki izan dituzte ikastetxe batzuek.

José Vilá Ikastetxe Publikoaren ixtea da José María Iribarren Ikastetxe Publikoa itxi ondoren Iruñean ixten den bigarrena. Bi kasuetan bat datoz bai ixteko arrazoiak, bai erabilitako estrategiak. Bietan ikastetxe publiko horien egoitzetara aldatu dira hezkuntza administrazioaren zenbait organismo. Lehen kasuan, Helduen Hezkuntza Iraunkorra bertara eramateko, eta José Vilá ikastetxearen kasuan behin-behineko Irakasleentzako Laguntza Zentroa jartzeko.

Bi kasuetan ixtearen arrazoia ikasle kopuru txikiak dira, baina ikastetxe horiek kokatuta dauden lekuetan, ikastetxe pribatu itundu batzuek behera-kadari izan beharrean gorakadak izan dituzte ikasle kopuruetan, hezkuntza ziklo guztiak –ez bakarrik haur eta lehen hezkuntza– eskaintzen dituztelako. Bestalde, eraikin berriak egin dira kokatuta dauden auzoetan, hiru haurtzaindegi daude José M^a Iribarren ikastetxea dagoen tokian, eta José Vilá Ikastetxe Publikotik 500 metrora haur eskola bat eraikitze proiektua dago; Iruñeko alde horretan, gainera, nabarmen egin du gora etorkinen kopuruak, eta ikasturte honetan matrikula kopuruak onbidean jarri dira.

Ez da inolako azterlan demografikorik egin alde horri buruz, eta ikastetxea birpizteko ahaleginik ere ez da egin, gurasoen elkarteak iradoki zuenari muzin eginez. Halako saiorik egin izan da arrakasta handiz Tuteran eta Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako beste ikastetxe publiko batzuetan: atzerriko hizkuntzen edo musikaren irakaskuntzak edo D ereduak berekin ekarri dute matrikulak gora egitea aurreko ikasturtean behera egiten hasia zen lekuetan.

Gurasoen elkarteak José Vilá ikastetxea ixtearen aurkako jarrera azaldu du, uste baitu hango irakaskuntza moduak aukera ematen duela ikasle-

ei banakako arreta emateko eta, eskola integrazioaren ikuspegitik, eskolako elkarbizitza atsegina eta eredugarria izateko. Familiek José Vilá ikastetxea lehen aukera gisa hautatu dute heldu den ikasturterako ere. Ixteko prozesua isilka eraman izanak, ILZa instalatzeko garaian egin diren bidegabekeria amaiezinek eta Hezkuntza Departamentuak gauzak egiteko moduak berak ere atsekabea sortu dute gurasoengan.

Gurasoen elkarteak, otsailaren 16ko agerraldian, ikastetxea ixteko prozesu osoari, ikastetxe hori ixtearen aurka egoteko arrazoiei eta José Vilá ikastetxea birpizteko egin dituzten eskariei buruzko informazioa zabala eman digu. Halaber, Nafarroako Parlamentuaren iritzia eskatu zuten, bitartekari baten erabakia behar baitute, gutxienez ere Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren erabaki arrazoi gabearen aurrean "garai-pen moral" bat izateko.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. 3 hilabeteko epean Parlamentura igor dezan, eztabaida eta onets dadin, ikastetxe publi-

koak birpizteko plan bat. Plan horrek ondokoak jasoko ditu:

a) Lehen hezkuntzako ikastetxeetan beste hezkuntza-maila batzuk sartzeko aukerak, betiere azpiegiturak egokituta.

b) Gaztelaniazko eta euskarazko irakaskuntza bilduko dituzten hizkuntza ereduak integratzeko aukerak.

c) Atzerriko hizkuntzen irakaskuntza ezartzeko aukerak.

d) Eskaintzen dituen ikastetxerako erakargarri gerta daitezkeen arte irakaskuntzak eta beste eskola-jarduera batzuk ezartzeko aukerak.

e) Zailtasun bereziak dituzten ikastetxeetan hezkuntza zerbitzu osagarriak hobetzeko aukerak.

2. Hezkuntza Departamentuak José Vilá Ikastetxe Publikoa ixteko hartutako erabakia bertan behera uztea, gutxienez ere 2001/02 ikasturterako, eta eremu horri buruzko azterlan soziologiko bat egitea, Nafarroako Eskola Kontseiluari horren gaineko txostena eskatzea eta ikastetxea birpizteko neurriak ezartzeko aukerari buruzko plangintza bat egitea.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko eledunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaida dadin.

Baliabideak ahalik eta hobekiena erabili, gas-tua kontrolatu eta kudeaketa fiskalizatu: horiek guztiak egin beharko dira Nafarroako etorkizuneko osasun sisteman. Hortaz, egokitu egin behar dira, edo berbideratu, kudeaketaren fiskalizaziorako aholku tekniketari lan egiten duten organo laguntzaileak; norabide bikoitzean izan beharko dute kontrapuntu: politikoko-agintari eta herritar-gaixo.

Europako beste herrialde batzuetan ikusten denez, osasun politikaren joera berri honek proposatzen duena da lehentasuna ematea osasunaren sustatzeari, eta, hori helburu, lan horretara biltzea ukitatutako oro, bai osasun arlokoak bai horretakoak ez direnak; garrantzi berezia dute, azken zeregin horretan, gizabanakoak, familiek eta komunitateak.

Ikuspegi hori oinarri hartuta, uste dugu beharrezkoa dela zenbait programarekin jarraitzea eta beste batzuk hobetzea; administrazioaren baliabideak kudeatzeko eta ematen dituzten zerbitzuak kalitatekoak izan daitezen, anbizio handikoak izan beharra dugu, bai eta posibilista eta pragmatikoak ere.

Nafarroako osasun sisteman, 1986 urtean hasita, aho-hortzetako arazoei aurrea hartzeko osasun-laguntza ematen zaie haurrei, bai eta laguntza arrunta ere, salbu eta ortodontzia tratamenduak. Osasun-laguntza hori dohainekoa da 1991tik.

Urte horretan hasi zen betetzen Nafarroan Haurren Aho-hortzetako Osasun-laguntzaren Programa, zeinak 58/1991 Foru Dekretua baitu jatorri. Haurrek noiz betetzen dituzten 6 urte, urte horretako urtarilaren 1ean hasten da programa, eta, amaitu, 15 urte betetzen dituzten urteko abenduaren 31ean amaitzen da.

2000 urtean, 31.900 haur izan ziren, adin guztietakoak, haur-programa horretaz baliatu zirenak. Programa horren emaitza onak nabarmenak dira: 1987an, 6 urteko haurren % 63k zuen txantxarra, eta, hamar urte geroago, % 27koa besterik ez zen ehunekoa.

Cantabriako Auzitegi Nagusiko epai batek berretsi du osasun publikoak bere gain hartu behar duela hortzetako enpasteak egitea, bai eta

buxadurak eta, orokorrean, estomatologiaren arloko osasun-laguntza guztia, hortzetako protesizat jo ez daiteken oro alegia. Epai horrek berretsi egin du beste epai batzuk aurretik esanikoa.

Odontologi prestazioak eta estomatologi laguntza ez daude, baina egon litezke, O-NOZek emaniko zerbitzuen barnean.

Botere publikoek ematen dituzten zerbitzuek berretsi egin behar dute Nafarroako bizi-kalitatea eta osasun-laguntza. Beraz, Nafarroan aho-hortzetako osasun-laguntza hobetzeari garrantzitsua dela deritzogu, bai eta laguntza hori 18 urtetaraino zabaltzea ere, ortodontziak barne direla; edo, gutxienez, zabaltze horrek izanen lukeen kostua aztertu beharko litzateke.

Nafarroako osasun sistema punta-puntako izan da beti, kalitatekoa izan delako eta zerbitzu asko eman izan dituelako. Nafarroako ekonomia asko hazi da eta, gaur egun, lehen pentsa ezinezkoak ziren mailetara heldu gara; uste dugu, beraz, beharbada garaia dela administrazio publikoaren zerbitzu-eskaintza zabaltzeko. Egia da eskaera asko dagoela, eta herritarren beharrak asko direla, baina osasuna lehentasuneko gaia da eta horrela hartu behar dugu.

Osasunbideari, 2000 urtean, 250 milioi kostatu zitzaion gutxi gorabehera aho-hortzetako osasun-laguntzaren programa; laguntza hori Osasunbidearekin itundutako dentista pribatuen bidez eta Osasunbideako lau langileren bidez ematen da. 2001 urtean 153 dentista itundu izanen dira Nafarroako haurrei aho-hortzetako osasun-laguntza emanen dietenak.

Egia da ezin dugula arriskutan jarri Nafarroaren bideragarritasun ekonomikoa kostu handiko zerbitzuak emanez. Ortodontziak 18 urtetaraino zabaltzea aukera bat besterik ez da, baina, kontuan hartu beharrekoa; izan ere, aho-hortzetako osasun-laguntza osoa ematea osasun kalitatearen mesederako izanen litzateke.

Horregatik guztiagatik, hona erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat aurkez dezan sei hilabeteko epean; hain zuzen ere, aho-hortzetako osasun-laguntza, ortodontziak barne direla, 18 urtetaraino zabaltzeak Nafarroako Ogasunarentzat izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Foru Araubide Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio bat aurkeztu du Osoko Bilkuran lehenbailehen eztabaidatu eta bozkatzeko, Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz hartu beharreko neurriei buruz.

Zioen azalpena

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldearen iritziz, Valtierran izandako azken gertaera berezien aurrean, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak neurri berezi eta presakotak hartzea.

2000ko irailaren 13an arazoak izan zituzten herri horretako zenbait bizilagunek, atera behar izan zirelako etxeetatik, hauen zati batzuk erortzen hastean eta herria zeharkatzen duen errepi-dean, herriko kale nagusia, alegia, zulo handiak agertu zirelako. Gertaera horien aurrean, gure taldeak bi galdera egin zizkion Gobernuari egindakoaz eta ikusitakoak ikusita egin beharrekoaz.

Gertaera hauek, dirudienez, Valtierra zorupearen berezitasunaren ondorio dira. Lurzorua oso gesaltsua da herri horretan, eta leize, aintzira eta erreka ugari dago lurrazpian, bertako zaharrek ongi dakitenez, ederki gogoratzen baitute Ebro ibaiak gainez egiten zuenean herri osoko sotoak

hartzten zituela urak eta Erriberako herri horrek ondo-ondoan dituen mendietatik behera lokatz uholdeak eragiten zituztela euriteek.

Nafarroako Gobernuak talde honen galderei emandako erantzunak, besteak beste, adierazten zuen bazirela azterlan batzuk eginak eta informazioa bazela maila freatikoa ezagutu eta kontrolatzeko urte batez eginiko zundaketena, Nafarroako Gobernuak 2000ko martxotik hasita, garai hartan esan baitzuen Gobernuak hala egiteko, era horretara irizpena emateko mugimenduen balizko arrazoiak gainean eta horrelakorik gerta ez dadin eta ukitutako lurra sendotzeko bitarteko gainean.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Herrilaren Batzordeak aukera izan zuen bertatik bertara ezagutzeko ondorioak eta Udalak azterlanak egiteko kontraturiko teknikarien azalpenak; azterlanak amaitzeaz daude eta, horien arabera, arazoa Valtierrako zorupearen ezaugarrietan datzala ematen du.

Azkeneko gertaerak ikara emateko modukoak dira. Mendiaren zati bat erori izanak kalte material handiak eragin ditu bizilagun baten ondasunetan. Zorionez, zorte onekoak izan dira oraingoan eta ez da kalterik izan pertsonengan, Udalak azkar jokatu eta berehala agindu baitzuen eroritako biltgetatik jendea aterarazteko eta alde hartara pasatzea debekatzeko.

Noski, Valtierrako herritarren artean alarma handia sortu da eta konponbideak eskatu dizkiete behin eta berriz Valtierrako Udalarari eta bereziki Nafarroako Gobernuari, arazoari aterabidea emateko gastua handia izan daitekeelako, Udalak bere gain hartu ezina.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak, Valtierrako azken gertaeren aurrean Nafarroako Gobernua haxe egitera premiatzen du:

1. Irizpen bat presta dezan lehenbailehen mugimenduei buruz eta horrelakorik ez gertatzeko eta lurra sendotzeko bitarte egokiei buruz.
2. Egindako azterlanak foru ogasuneko diruarekin ordain ditzan, bai eta lurretan esku hartzeko neurriak ere, Valtierrako erorketa arazoei aurre egiteko eta aurrerago ez gertatzeko egokitzat jotzen den kasuetan.

3. Aparteko laguntzak eman ditzan Valtierrako

lur higiduren ondorioak, pertsonengan nola ondasetan, pairatu dituzten edo pairatzen ari diren bizilagunendako.

Iruñean, 2001eko martxoaren 3an.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Abelbideei buruzko Foru Legea betetzearen gaineko galdera*FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Abelbideei buruzko Foru Legea betetzearen gainean egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1997ko azaroaren 10ean, Nafarroako abelbideei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Arau horren edukiaren betetzea dela-eta, hauxe jakin nahi da:

– Zer baliabide jartzen ditu Nafarroako Gobernuak aipatu foru legearen betetzea behatzeko?

– Zer jarduketa, ekintza, azterlan... egiten dira Nafarroako abelbideen egoera ikusi eta behatzeko?

– Foru legea onetsi zenetik, Nafarroako abelbideen zaintze-mailak zer bilakaera izan du? Ba al da daturik esateko zeinek jarraitu duten berdin, zeinek egin duten okerrera eta zeinek hobera?

– Zenbat zehapen-espeditente ireki dira araua ez betetzeagatik? Zein kasutan? Zenbat izan dira aplikatutako zehapenak?

– Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak zein egoeratan dauden, orokorrean, Nafarroako abelbideak? Ba al du berariazko planik bide horien zaintza bermatzeko?

Iruñean, 2001ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Nekazaritza aseguru konbinatuei emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak nekazaritza aseguru konbinatuei emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren 2001eko urtarrilaren 22ko Foru Aginduak 2002ko zenbait nekazaritza-asegururen kontratazio kosturako dirulaguntzak ematen ditu Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planaren barnean.

Nekazaritzako aseguru ezinbesteko tresna da behi eta ardi aziendatan zein laboreen hazkunde zikloan eguraldi txarraren eraginez gerta daitezkeen kalteak arintzeko. Nekazaritzako aseguruen kultura etengabe sustatu beharrekoa da, erne

egon behar baita beti; izan ere, zenbat eta kontratu gehiago, orduan eta aurreratuago nekazaritza.

Nekazaritzako aseguru konbinatuen aseguru etxeen elkarteak (Agroseguro, SA) bide ematen du Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren zenbatekoa kentzeko aseguruen hartzaileak poliza sinatzean ordaindu beharrekoak.

Nekazaritzako Aseguruaren Estatuko entitatea (ENESA) da nekazaritzako aseguruen kontratuak egiteko dirulaguntza ematen duena.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza berezia ematen du, aurrekoaren osagarri, nekazaritzako aseguru konbinatuen primak ordaintzeko, baldin eta uztak eta behi zein ardi aziendak ustiatzeko Nafarroan badaude.

Halere, foru agindua irakurrita, Nafarroako Gobernuak labore gehienetarako ematen dituen dirulaguntzak 2000 urtearekin alderatuta ehuneko 17 jaitsi direla ikusten da, eta artoaren kasuan ia ehuneko 40.

Hori dela-eta, hauxe jakí nahi da:

1.- Zer dela-eta jaitsi du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak nekazaritzako aseguruetarako dirulaguntzen zenbatekoa?

2.- Zenbat aurrezten da gutxi gorabehera ehuneko berriak aplikatzean?

Iruñean, 2001eko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2001. urterako plantilla organikoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko martxoaren 7an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2001. urterako plantilla organikoa onestea.

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko martxoaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Lanpostua	Kopurua	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen askea	Lanpostua	Mailako osagarria
Arartekoaren aholkularia	2	C	-	X	-	-
Arartekoaren Idazkaritza	1	G	-	X	-	-
Administraria	1	F	C	-	23	12
Mandataria	1	F	D	-	15	15

F: Funtzionarioa.

C: Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua - Izendapen askea.

G: Kabineteko behin-behinekoa - Izendapen askea.

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---